

P05 - EKIMAKER

Ekimaker lan-proposamena inplementatzeko orientabideak aurkeztuko zaizkie irakasleei, sei urteko esperimenezkoaren emaitza gisa. Teknologiako unitate didaktikoarekin, DBHko ikasleak sormen handiko pertsona talde batekin elkarlanean, makina berritzaileak fabrikatzen trebatuko dira. Aztergaiak: Ekimakerren ezaugarri orokorrak, Unitate didaktikoaren ibilbidea, Metodologia eta inplementazioa, Jarduera didaktikoak, Eraitzen album kolektiboa.

Ikasurtea
3. DBH
4. DBH

Data
2024ko maiatzan

Lantzen diren irakasgaiak
Teknologia
Lanbide orientazioa

Hizkuntza
Euskara

Irismen geografikoa
Araba
Bizkaia
Gipuzkoa

Erakunde sustatzailea
Ikastolen Elkarte

Helburuak

Ondorengo helburuak ditu saioak:

- 2024-25etik aurrera DBH 4ko Teknologiako Ekimaker unitatea lehen aldiz, eredu digitalean erabiliko duten irakasleei proiektuaren antolaketari eta jarduera didaktikoei buruzko azalpenak ematea.
- Euskarri digitalaren erabilerarako aukerak ezagutzeaz gain, Ekimaker unitatearen nondik-norakoak eta ebaluaziorako tresnak azaltzea.

Zer ikasten dute ikasleek?

Talde parte hartzaileen arteko EKIMAKER eskari teknologikoaren aurrean, ikasleak elkarlanean maketa eraikitzen du eta jendaurrean aurkezpen digitalak erabiliz ahoz aurkezten du, beti ere, kooperatiboki arituz eta prozesu teknologikoaren pausoak aplikatuta.

Talde parte hartzaileek aukeratutako arazoaren analisitik abiatzen dira, soluzio egokiak diseinatzeko eta planifikatzeko; amaieran prototipo baten enkargua prestatu ahal izateko.

Curriculumaren edukiak

STEM konpetentzia garatzeari dagozkionak.

Garapena

Irakasleentzako 2 orduko prestakuntza-webinarra eta proiektuan murgiltzeko aholkularitza (2023-2024 ikasturtean).

Unitate didaktiko digitala (2024-2025tik aurrera eskuragarri).

METODOLOGIA
 Zuzeneko online saioa izango da.

Baliabideak

Webinarrerako internetera konektatutako ordenagailua: 2023-2024 ikasturtean irakasleentzako zuzeneko online prestakuntza hau eskainiko da, irakasle-ekipoa proiektuan murgil dadin eta ikastetxean inplementazioaren antolakuntzan laguntzeko.

2024-25 ikasturteetik aurrera, ikasgeletan jarduera garatzeko eskolek Ekimaker unitate didaktiko digitala eskuratu beharko dute (Ikaslekar bidez).

WEB (Bertsio berria prestatzen)